


# AZAROAREN 25<sup>a</sup>

EMAKUMEEN AURKAKO BORTXAKERIAREN  
KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA



GANETIK KENDU EIZUZ HARREMAN  
KALTEGARRIAK...  
EZ BADA ALDATZEN,  
HARREMANA ITZI.



AMOREBIETA - ETXANOKO UDALA

BARDINTASUN ARLOA

# GANETIK KENDU EIZUZ HARREMAN KALTEGARRIAK...

## EZ BADA ALDATZEN, HARREMANA ITZI.

- Iraintzea, baztertea eta menderatzea ez dira maitasunaren adierazpenak.
- Harremana osasungarria izan ezean, goibeltasuna baino ez deustu ekarriko.
- Inortxok ez dauka eskubiderik egin ahal dozuna zuri esateko, ez nora joan ahal zaren, ezta zelan jantziko zaren.
- Jelosia ez da zuganako duen maitasunaren seinale.
- Ez inoiz zure askatasuna mugatu bera pozteko.
- Inoiz be ez dozu jasan behar zure borondatearen kontrako sexu jokaerarik.
- Ez zaitez errudun sentitu bere jarrera matxistengatik.
- Ez dago argudiorik bortxakeria arrazoitzeko. Pertsona guztiek dauke hasarrazteko eskubidea baina inoiz ez bortxakeria erabilteko.
- Bikotean arazoak izatea normala da, bortxakeria inoiz ez.
- Bortxakeriak ez dauz gatazkak konpontzen.....larriago egiten dauz.
- Bikote harremanek oinarrian izan behar dabe elkarrekiko begirunea.

## ESKATU EIZU LAGUNTASUNA!

### UDAL ZERBITZUAK DAUKAZUZ AMOREBIETA-ETXANON:

>> **GIZARTE ZERBITZUAK NAFARROA ZENTROAN** 10etatik 14etara

Tf: **94 630 0190** / Fax: 94 630 0576 / e- helbidea: [ongizatea@amorebieta.net](mailto:ongizatea@amorebieta.net)

Zuri laguntzeko dagoz:

- **GIZARTE LANGILEAK**
- **PSIKOLOGOA**
- **ABOKATUA**

>> **UDALTZAINGOA:** Tf. **94 630 0160** / Fax: 94 630 0185

>> **ERTZAINZA DURANGO:** Tf. **94 466 9300** / Fax: 94 466 9301

### DOHAKO BESTE ZERBITZUAK BE ERABILI AHAL DOZUZ:

>> **LARRIALDIAK SOS DEIAK:** Tf. **112** / Fax: **94 4063304** / SMS: **600 123 112**

>> **SAV (Biktimarentzako doako laguntasun zerbitzua):** **900 400 028** Bizkaia

>> **SAER (Gizarteratzeko doako zerbitzua Bizkaian):** **94 401 6486**

>> **Ganera, 24 orduko doako zerbitzua dozu estatu osoan:** **016** Ahozko komunikaziorako zailtasunak badozuz: **900 116 016** **DEITU OSTEAN, EZABATU DEIA TELEFONO FINKOAN EDO ESKUKO TELEFONOAN.**